

Parke teknologikoaren eraginez, Zamudiok Euskal AEn per capita BPG handiena duen udalerria izaten jarraitzen du

Industria-sektorea eta industriari lotutako zerbitzuak per capita BPG handiena duten udalerri gehienetan

Zamudioko udalerria, Bizkaiko lurralde historikoan, Euskal AEn per capita barne produktu gordinik handiena duen udalerria izan da 2019an, Eustatek emandako datuen arabera. Hori hala da, funtsean, haren industria-egitura eta industriari lotutako zerbitzuen pisu nabarmena (4.0 Industria deritzona) konbinatzen direlako.

Olaberria Gipuzkoan eta Ajangiz Bizkaian bigarren eta hirugarren postuetan daude, hurrenez hurren. Udalerrri horiek industria-izaera nabarmena dute, eta industria-sektorearen pisua % 75etik gorakoa da guztietan.

Biztanleko BPG altuena (eurotan) izan duten Euskal AEko udalerriak eta horien banaketa 4 sektoretan (%). 2019

LURRALDE EREMUA	Biztanleko BPG	SEKTOREKAKO BANAKETA (%)			
		NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Euskal AE	36.254	0,9	23,9	5,9	69,4
Araba/Álava	38.577	1,5	31,5	4,8	62,2
Bizkaia	35.002	0,8	18,6	6,0	74,6
Gipuzkoa	37.188	0,7	28,3	6,2	64,9
1 Zamudio	530.327	0,1	42,3	4,2	53,4
2 Olaberria	305.677	0,2	80,8	0,3	18,7
3 Ajangiz	229.615	0,9	82,3	0,4	16,3
4 Loiu	225.513	0,2	22,2	4,8	72,8
5 Arama	224.340	0,3	70,0	1,5	28,2
6 Berantevilla	181.134	3,9	76,6	3,4	16,1
7 Aduna	161.029	0,5	63,0	2,2	34,3
8 Zierbena	155.946	0,9	62,5	1,7	34,9
9 Mallabia	149.051	0,8	76,8	0,7	21,6
10 Legutio	144.347	0,4	76,7	1,8	21,1

Iturria: Eustat. Udal BPG

Atzera begira, aldaketa gutxi izan dira azken 20 urteotan. 2000. urtearekin alderatuta, 7 udalerririk Euskal AEn per capita BPG handiena duten 10 udalerrien artean jarraitzen dute. Zamudiok lehen postuari eutsi dio 20 urte hauetan, salbu eta 2005ean; Olaberria 2000. urtean 4. postuan hasi zen, eta 2005ean lehenera igo, baina bigarren postuan dago ordutik gaurdaino. Ajangiz eta Loiu seigarren eta zazpigarren postuan zeuden 20 urte lehenago, eta hirugarrenean eta laugarrenean, 2019an. Lehenengo 10 postuetan Mallabia, Aduna eta Legutio ere ageri ziren. Aramaren kasua deigarria da, 2000. urtean 234. postuan baitzegoen, eta, 2016tik aurrera, per capita BPG handiena zuten 10 udalerrien taldean sartu zen. Berantevilla eta Zierbena dira zerrenda osatzen duten beste bi udalerririk.

Biztanleko BPG handiena duten Euskal AEko udalerriak (euroak). 2000 eta 2019

LURRALDE EREMUA		Biztanleko BPG 2000	LURRALDE EREMUA		Biztanleko BPG 2019
Euskal AE		20.226	Euskal AE		36.254
Araba/Álava		20.971	Araba/Álava		38.577
Bizkaia		18.620	Bizkaia		35.002
Gipuzkoa		24.811	Gipuzkoa		37.188
1	Zamudio	225.270	1	Zamudio	530.327
2	Izurtza	143.750	2	Olaberria	305.677
3	Aduna	138.914	3	Ajangiz	229.615
4	Olaberria	138.713	4	Loiu	225.513
5	Legutio	126.534	5	Arama	224.340
6	Ajangiz	119.111	6	Berantevilla	181.134
7	Loiu	88.209	7	Aduna	161.029
8	Gizaburuaga	84.908	8	Zierbena	155.946
9	Mallabia	82.622	9	Mallabia	149.051
10	Armiñón	80.717	10	Legutio	144.347

Iturria: Eustat. Udal BPG

Metalaren eta ardogintzaren industriak Araban per capita BPG handiena duten udalerrietan

Berantevilla da –Añanako eskualdean dago– 2019an biztanleko BPG handiena duen Arabako udalerria (181.134 euro). Udalerrri horretan, industria-sektoreak bere jarduera ekonomiko osoaren % 76,6 sortzen du, eta metalaren industriako jarduerak nabarmentzen dira, hala nola Garraio-materiala, metalurgia eta makineria eta ekipoa fabrikatzekoak.

Gorbeialdeko eskualdean, Legutio nabarmentzen da per capita BPG handiena duen eta industria-pisua ere % 76tik gorakoa duen lurralde historikoko bigarren udalerri gisa, eta berriz ere metalaren industriaren adarrak dira –Ingeniaritza mekanikoa eta Metalurgia– jarduera handiena sortzen dutenak.

Bestalde, Arabako Errioxako eskualdean, bi udalerri daude lurralde historikoan per capita BPG handiena dutenen artean, baina, kasu horretan, haien ekoizpen-egitura ez da aurreko udalerrien kasuan azaldutakoa bezalakoa. Hala, Laguardia eta Villabuena Araba udalerrien bereizgarria da industria-sektorearen eta zerbitzu-sektorearen arteko ekoizpen-egitura orekatuagoa dutela, nahiz eta biak ardogintza-sektorearekin oso lotuta egon: alderdi industrialak upeltegien jardueragatik (Edarien fabrikazioa) eta zerbitzuena, neurri handi batean haiei lotutako ostatu- eta jatetxe-jarduerengatik (Ostalaritza).

Biztanleko BPG handiena duten Arabako eskualdeak eta udalerriak (euroak) eta 4 sektoretan duten banaketa (%). 2019

LURRALDE EREMUA	Biztanleko BPG	SEKTOREKAKO BANAKETA (%)			
		NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Araba/Álava	38.577	1,5	31,5	4,8	62,2
1 Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	64.234	12,7	54,7	2,4	30,2
2 Añana	54.947	6,5	59,1	3,0	31,3
3 Gorbeialdea / Estribaciones del Gorbea	48.559	2,0	59,1	3,7	35,2
1 Berantevilla	181.134	3,9	76,6	3,4	16,1
2 Legutio	144.347	0,4	76,7	1,8	21,1
3 Laguardia	129.801	9,0	48,7	1,6	40,7
4 Villabuena de Álava/Eskuernaga	106.386	13,8	66,1	2,0	18,1
5 Bernedo	105.134	7,0	20,9	0,8	71,4


Iturria: Eustat. Udal BPG

Horren ondorioz, gainera, per capita BPG lurralde historikoko batez bestekoa baino % 66,5 handiagoa izanik, Arabako Errioxako eskualdea lehen postuan dago Araban, bai eta Euskal AE osoan ere.

Bosgarren tokian, udalerrien artean, Bernedo dago Arabako Mendialdean; zerbitzuen sektorean oinarritutako enpresa-egitura du (% 71,4).

Biztanleko BPG, Arabako udalerrien arabera

Euroak



Iturria: Eustat. Udal BPG

Per capita BPG handiena duten Bizkaiko udalerriek industriako eta zerbitzuetako jarduerak konbinatzen dituzte

Zamudio Bilbo Handiko eskualdean dago, eta Bizkaiko eta Euskal AEko per capita BPG handiena duen udalerria da. Haren enpresa-egitura handia industrian oinarritzen da (% 42,3), eta garrantzi berezia dute Garraio-materialaren ekoizpenari lotutako enpresek; halaber, zerbitzuen sektorean ere (% 53,4) oinarritzen da, batez ere industriari lotutako Zerbitzu profesionalak eta teknikoak eskaintzen dituzten enpresen presentziaren ondorioz.

Bilbo Handiaren barruan, Loiu ere nabarmentzen da, Aireportuko jarduerarekin zerikusia duten zerbitzuei esker, baita Metalaren industriari esker ere, eta Zierbena, berriz, Energiarekin lotutako industria-jarduerari eta Garraioarekin eta biltegiatzearekin lotutako zerbitzuei esker.

Ajangiz, Gernika-Bermeo eskualdeko udalerria, Bizkaian per capita BPG handiena duen bigarren udalerria da. Haren egitura ekonomikoak industria-izaera argia du, % 82,3ko pisua, Plastikozko produktuen fabrikazioan oinarrituta.

Biztanleko BPG handiena duten Bizkaiko eskualdeak eta udalerriak (euroak) eta 4 sektoretan duten banaketa (%). 2019


LURRALDE EREMUA	Biztanleko BPG	SEKTOREKAKO BANAKETA (%)			
		NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Bizkaia	35.002	0,8	18,6	6,0	74,6
1 Durangaldea / Duranguesado	42.348	0,4	40,9	4,2	54,5
2 Bilbo Handia / Gran Bilbao	35.781	0,1	14,1	6,1	79,6
3 Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión	34.771	2,2	43,3	3,9	50,6
1 Zamudio	530.327	0,1	42,3	4,2	53,4
2 Ajangiz	229.615	0,9	82,3	0,4	16,3
3 Loiu	225.513	0,2	22,2	4,8	72,8
4 Zierbena	155.946	0,9	62,5	1,7	34,9
5 Mallabia	149.051	0,8	76,8	0,7	21,6

Iturria: Eustat. Udal BPG

Mallabia, Durangaldeko udalerria, bosgarren postuan dago Bizkaiko rankinean, eta industria-pisu handia du (% 76,8), batez ere Ingeniaritza mekanikoko edo Garraio-materialeko jarduerengatik. Durangaldea Bizkaian per capita BPG handiena duen eskualdea da. Bertan, industria eta zerbitzuetako jarduerak ere konbinatzen dira, nagusiki; Metalurgia eta Merkataritza eta Ostalaritza nabarmentzen dira, hurrenez hurren.

Biztanleko BPG, Bizkaiko udalerrien arabera

Euroak



Iturria: Eustat. Udal BPG

Goierri eskualdean Gipuzkoako lurralde historikoko per capita BPG handiena sortzen duten hiru udalerri daude

Olaberriak –Goierri– 305.677 euroko per capita BPG du, eta Gipuzkoan lehen postuan dago eta bigarren postuan Euskal AE osoan. Industriak udalerrian duen pisua % 80tik gorakoa da, eta Siderurgia eta Makineria eta ekipoaren ekoizpena bezalako jarduerak nabarmentzen dira.

Goierriin, Arama ere nabarmentzen da, % 70,0ko industria-pisua baitu; batez ere Makineria eta ekipoaren ekoizpenean oinarritzen da. Ormaiztegi Ibilgailu motordunen fabrikazio handia du; industriak % 89,2ko pisua du.

Biztanleko BPG handiena duten Gipuzkoako eskualdeak eta udalerriak (euroak) eta 4 sektoretan duten banaketa (%). 2019

LURRALDE EREMUA	Biztanleko BPG	SEKTOREKAKO BANAKETA (%)			
		NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA	INDUSTRIA ETA ENERGIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
Gipuzkoa	37.188	0,9	23,9	5,9	69,4
1 Debagoiena / Alto Deba	42.163	0,6	49,6	4,0	45,9
2 Goierri	39.682	0,6	55,5	5,2	38,7
3 Donostialdea	39.217	0,2	15,7	6,6	77,5
1 Olaberria	305.677	0,2	80,8	0,3	18,7
2 Arama	224.340	0,3	70,0	1,5	28,2
3 Aduna	161.029	0,5	63,0	2,2	34,3
4 Ormaiztegi	116.709	0,3	89,2	0,5	10,0
5 Belauntza	93.081	1,1	72,8	5,7	20,3


Iturria: Eustat. Udal BPG

Aduna, Tolosaldean, hirugarren postuan agertzen da lurraldeko per capita BPGri dagokionez, Industria ez-metalikoa bezalako jardueri esker. Tolosaldean ere Belauntza udalerria dago, eta Gipuzkoan per capita BPG handiena duen bosgarren udalerria da. Kasu horretan, posizio hori batez ere Eraikuntza metalikoan oinarritutako industria-egituraren ondorio da.

Bestalde, Debagoiena lurraldeko lehena da per capita BPGri dagokionez; industria eta zerbitzuen sektoreen arteko egitura orekatua du, % 49,6ko eta % 45,9ko pisuarekin, hurrenez hurren.

Biztanleko BPG, Gipuzkoako udalerrien arabera

Euroak



Iturria: Eustat. Udal BPG

Ohar metodologikoa: Datuak hobeto interpretatzeko, **udal-mailako BPG** eta **udal-errenta** bereizi behar dira; BPG ekoizpenari eta aberastasunaren sorrerari lotuta dago, eta ekoizpen-establezimendu garrantzitsuak dituzten udalerrietan kontzentratzen da. Errenta, berriz, pertsonen eta haien bizilekuari lotuta dago.

Bestalde, BPG per capita terminoetan eskaintzen da, udalerrien tamaina birdimentsionatzeko –haitan sortzen den BPG biztanleriaren artean zatituz–, eta, hala, tamaina oso txikiko udalerrien eta tamaina handiko udalerrien jardura ekonomikoaren arteko konparaziorako bide ematen da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62